

### LEHEN ZATIA-*Lehorreratzea*

Victoria ontzia 1522ko irailaren 6an Sanlucar de Barramedako portura iritsi zen unea antzezten da. Hiru urte luzeko nabigazioaren ondoren, 18 marinela Europear eta hiru Molukatar iritsi ziren.

Hemezortzi horiek gainera, lehenbiziko aldiz munduari itzulia emanda Juan Sebastian Elkano eta bere tripulazio kideak elizara egiten duten bideak bi zati izango ditu.

Lehenengoan, Mundubiraren gogortasuna (janari eskasia, eguneroko baldintza gogorak, heriotzak...) antzeztuko da. Bigarrenengoan, Elkano eta 17 marinela Salbatore Deunaren elizara abiatuko dira, Antiguako amabirjinari eskerrak ematera, horrela, munduari bira eman ondoren, Sevillako katedralera egin zuten bisita irudikatuko da. Zati honetan 3 indigenak ez dira elizara sartuko, haien sinesmenekiko errespetuz.

### BIGARREN ZATIA-*Berdintasunetik munduaren aniztasuna*

Eliza atarian, Elkano eta bere tripulazio kideak bost kontinenteetako ordezkariekin bilduko dira. Ordezkaritza horretan, kontinente horietako batzuetatik herrira bizitzera etorritako getariarrek hartuko dute parte. Ordezkaritza zabal horren bidez, mugarik gabeko mundua irudikatu nahi da, guztiok batera berdintasunean eta eskuz esku eraikiko dugun mundua.

### HIRUGARREN ZATIA-*Mundu berri bat*

Elkano eta bere tripulazio kideak, kontinenteetako ordezkariekin batera, Elkanoren omenez eraikitako monumenturantz abiatuko dira. Han, kontinenteetako ordezkariak egingo diote harrera.

Elkanori, eta sinbolismo handiz betetako irudi bat osatuko dute, guztiok garelako mundu irudikatuzeko. Gora Elkano abestia kantatuz amaituko da Getariako herriak Mundubiraren 500. urteurrena gogorarazteko antolatutako ekitaldia.



*Aurkezpen bideoa ikusi*



*ESP-FR-ENG  
INFO*





- Ekitaldiaren bidea**
- 1. Lehorreratzea
  - 2. Berdintasunetik munduaren aniztasuna
  - 3. Mundu berri bat



**ELKANOREN LEHORRERATZEA**  
 BIRA BAT, 100 MUNDU

**100. URTEURRENA**  
 2022KO IRAILAREN 6AN